



Arartekoaren 2013ko abenduaren 19ko ebazpena. Horren bidez, gomendatzen zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari Donostiako Arte Ederren eraikina kultur ondasun izendatzeko espedientea has dezan.

Aurrekariak

- Ancora elkarteak, Donostia hiriko kultur ondarea babestu eta defendatzeko eratuak, eskatu dio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagokion espedientea ireki dezala Donostiako (Urbietan kaleko 61) Arte Ederren Jauregia kultur ondasun izendatzeko.

Eskabidea 2013ko apirilaren 27an formalizatu zen, babes-proposamena arrazoitzeko dokumentazioarekin batera. Erreklamazioan adierazten duenez, gerta liteke eraikina eraistea, Donostiako Udalak onartutako udalerriko kultur ondasunen katalogoan babes-maila apalagoa esleitu baitzitzaion. Elkarrekin gogora ekartzen du, bestalde, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak 2013ko ekainaren 6ko txosten batean adierazitakoa, alegia, Arte Ederren eraikinak, dituen balio kulturalengatik eta esanguratsutasunagatik, euskal kultur ondarearen parte izan beharko lukeela, monumentu izendapenarekin.

- Sei hilabete baino gehiago igarota eskaera egin zenetik, Elkarrekin Arartekoarengana jo du adierazteko erantzunik gabe jarraitzen duela bere orduko eskaera hark, administrazioaren esku-hartzea galdegiten zuena eraikinaren kultur balioa behar bezala zainduta gera zedin.

Erantzunaren berandutzeak areagotu egin du Elkarrekin eraikinaren egoera dela-eta duen kezka, batez ere jabeak aurre-deklaraziorako espediente irekitzeko eskatu diolako Donostiako Udalari.

- Kexa, hala badagokio, behar den bezala izapidetzeko, 2013ko azaroaren 12an Arartekoak informazioa eskatu zion Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, galdetuz zer erantzun aurreikusten den espediente irekitzeko eskaerarako eta, baiezkotasun kasuan, zein izan daitekeen izapidetze-prozesua Arte Ederren kultur ondasun kalifikatu izendatzeko espedientearen kasuan.
- 2013ko abenduaren 9an Sailaren erantzuna jaso genuen. Gaiaren inguruko aurrekari batzuk azaltzeaz gain, txostenean zehazten zen zer jarduketari ekingo zitzaion Elkarrekin eskaera baloratzeko. Ildo horretatik adierazten zenez:

1977an Donostiako Udalak eraikin iraunkor gisa sartu zuen Arte Ederren R-Donostia Eremurako Plan Bereziaren barruan, hura babestu eta hobetu beharra aginduta.





1994an Donostiako Udalak eraikinean zenbait lani ekiteko agindu zuen, Arte Ederren segurtasuna, osasungarritasuna eta apaintasun publikoa ziurtatzeko, eta neurri horien artean fatxada zaharberritzea erabaki zuen. Jabeak ebazpenaren aurkako errekurtoa aurkeztu zuen, eraikina aurri-egoerakotzat jo zezatela eskatuz. Udalak ezetsi egin zuen errekurtoa, adieraziz egoera ez zela aurri-deklarazioa egiteko bezainbestekoa.

Erabaki administratibo horren aurka aurkeztutako errekurtoaren epaian, 1997ko apirilean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin zituen emandako egikaritze-aginduen aurkako errekurtoak. Hala ere, ebazpenean bertan adierazten zen perituak emandako irizpenarena arabera eraikina aurri-egoeran zegoela, egin beharreko konponketak orduko balioaren %267raino iristen zirelako. Horretaz gain, ordea, ebazpenean adierazten zen erakina leheneratze kontserbatzaileko araubidepean zegoela egiturazko elementuei zegokionez, eta horrenbestez, aurri-egoera ez zela eraikina kontserbatu beharra mugatzeko adina. Aurri-deklarazioa lortu arren, beraz, jabeak errespetatu egin behar zuen fatxada.

Epai horren aurkako errekurtoa aurkeztu zen Auzitegi Gorenean. 2001eko abenduaren 5eko epaian, Gorenak errebokatu egin zuen aurrekoa, baina Zuzenbidearen aurkakotzat jo ere auzitan jarritako egikaritze-aginduak, horien bidez eginarazten ziren lanak hirugarrenentzako arriskuak eragozteko behar zen baino harago zihoazelakoan. Epaiaren arabera, aurri-egoerak mugatu egiten du eraikina kontserbatu beharra. Aurri-deklarazioari zegokionez, Auzitegi Gorenak irizten zuen bazela bide judizialean aintzat hartzeko modukoa, baina bakarrik egikaritze-aginduaren legezkotasunaz ebazteko, eta horrenbestez, ez zuela gauza epaituaren baliorik hirugarrenetikiko. Horretarako, beharrezkoa zen aurria deklaratzeko espediente berriazko eta zehatz bat, interesdun guztiek esan beharrekoa entzunda.

Bestalde, Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra 2010eko ekainean onartu zen. 2013ko martxoan Donostiako Udalak hasierako onespena eman zion Eraikitako Hiri Ondarearen Plan Bereziari (EHOPB), horren barruan D babes-maila aitortuta Arte Ederren eraikinari haren eitea edo itxura bermatzeko, baina kontserbazioa ziurtatu gabe, ordea.

2013ko ekainean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak EHOPBren proposamenari buruzko txosten bat, Kultura Ondarearen Zentroak egina, bidali zion Donostiako Udalari. Arte Ederren eraikina dela-eta azaltzen denez: *"nahikoa kultur balioa du euskal kultur ondarearen parte bilakatzeko, monumentu-kategoriarekin, bai bere ezaugarri formalengatik baita eraikuntza eta hirigintza aldetik dituen ezaugarriengatik zein esanguratsutasunagatik ere"*.





Kultur administrazioak dioenez, elkarrizketak izan dituzte eraikinaren jabearekin eta Elkartearekin gaiaren inguruan. Jabeak adierazten du aipatutako epai judizialek aurri-egoerakotzat jo dutela Arte Ederren eraikina. Hala eta guztiz ere, 2013ko azaroaren 4an eraikina legez aurri-egoerakotzat jotzeko eskatu zion Udalari, eta espedientea izapidetzen ari da oraindik.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren iritziz, ordea, Arte Ederren eraikinak monumentu-kategoriarekin sartu beharko luke euskal kultur ondarearen multzoan, baduelako nahikoa balio kulturalik horretarako. Baina —gaineratzen du— 7/1990 Legeak, Euskal Kultur Ondareari buruzkoak, babesteko kultur ondasuntzat aurreikusten ditu arkitektonikoki eta ekonomikoki birgaitzeko moduan iraun dutenak. Uste du, beraz, legearen asmoa balio kulturala duten ondasunak zaintzea izanik ere elementu horiek gutxieneko kontserbazio-baldintza batzuk bete behar dituztela, aurri-egoeran egon gabe, bada.

Adierazten du, hortaz, kultur administrazioa prest dagoela ondasuna babesteko, baina lehenengo eta behin argitu egin beharra dagoela eraikina ez dagoela aurri-egoeran. Horretarako beharrezkoa da Donostiako Udalak lehenbailehen ebatz dezan aurri-deklarazioaren eskaera, izapide hori ezinbestekoa baita babestu nahi den ondasunaren birgaitzea bideragarria den edo ez irizteko.

Hala jakinaraziko zaio laster Elkarteari, eta era horretan zuzendu eraikina kultur ondasun izendatzeko prozedura-eskaeraren aurrean izan den isiltasun administratiboa.

Aurrekariak eta Kultur Ondarearen Zuzendaritzak helarazitako informazioa azterturik, egoki iritzi diogu ebazpen hau emateari, oinarri hartuta, horretarako, jarraian azaltzen diren

Gogoetak

1. Erreklamazioko kexaren gaia: Arte Ederren eraikina kultur ondasuntzat deklaratzeko espedientearen irekiera-eskaera. Erreklamazioak helburu du, batez ere, agerian uztea ez zaiola erantzun espediente bat irekitzeko eskaerari, zeinaren bidez proposatzen baitzen kultur ondasun izenda zezaten Donostiako Arte Ederren Jauregia, Urbieta kaleko 61ean kokatua. Eskabidea 2013ko apirilaren 27an aurkeztu zen.

Erreklamazioari erantzuteko, aztertuko dugu zer izapide administratibo bete behar diren ondasun bat kultur interesekotzat izendatzeko. Baina komenigarria da, halaber, erakina aurri-egoeran ote dagoen baloratzea, datu horrek ondorioak dauzka-eta eraikinak bere balio kulturalagatik lor dezakeen babes-erregimenari dagokionez.



2. Euskadiko kultur ondarearen babes-araubidea. Ohartu beharra dago, hasteko, 7/1990 Legea, Euskadiko Kultur Ondareari buruzkoa, euskal arte-ondarea defendatzeko, aberasteko eta babesteko asmoz eman zela. Kultur ondare horren parte dira *beren "garrantzi edo berebiziko balioagatik, babestea herri-zuduzko izan eta berariz horrela erabaki dadinekoak"* jotzen diren kultur ondasunak.

Euskadiko kultur ondarea osatuko duten ondasunak identifikatzea edo aukeratzea Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eskumena da. Kultur intereseko ondasunak babesteko politikaren oinarriak lurraldearen antolamendurako tresnen bitartez zehaztuz joan dira; tresna horien artean daude, besteak beste, Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideak, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartuak, eta geroago, Kultur Ondarerako Plan Sektoriala (aurrerapen-fasean 2000tik).

Ondasunen kultur balioa iriztea haren ardura izanik, kultur administrazioak arauturik dagoen eran jokatu du ondasunak sailkatzeko eta kasuan kasuko babes-maila zehazteko. Balioespen-irizpide izango dira, besteak beste, ezaugarri oinarriko eta nagusiak (balio arkitektoniko eta historikoa, berezitasuna, ereduzkotasuna...), hala nola beste irizpide zuzentzaile batzuk, adibidez ondareak bere izaeragatik dituen bestelako balioak, kokapena edo eraikinaren kontserbazio-egoera.

Komenigarria da eraikinaren kontserbazio-egoera baloratzea babes-araubidea zehazterakoan. Batez ere, babestu nahi den eraikina andaturik badago eta eraistekoa arriskua egonez gero. Horrelakoetan komenigarria da kultur ondarea babesteko ekintza-plan bat taxutzea; babestu nahi diren balio bereziko elementuak definitzea, horien babes- eta erabilera-araubidea zehaztea, elementuok birgaitu ahal izateko eta suntsi daitezzen eragozteko. Kasu horietan, babestu beharri, aurriari eta eraispinari buruzko araubidea berezia da higiezinaren eta hirigintzaren alorreko legediak aurreikusten duenaren aldean.

Babestu beharreko ondasunak zehazteko oinarri kontzeptualak eta metodologikoak aztertzean, Kultur Ondarerako LPSaren aurrerapen-dokumentuan honako hau esaten da kontserbazio-egoera dela eta: *"Egia bada ere faktore horrek ez duela eraginik izan behar babes-mailak esleitzean, ondorioak izan ditzake, ordea, aurri- edo andeatze-arriskuan dauden ondasunetan esku hartzeko eran eta leheneratze-lanak eteteko eta egikaritzeko aginduetan; hala, bada, garrantziko balioa duten ondareekin ari garenean komenigarria da, gutxienez, aukera hori gogoan izatea (orientabide gisa bada ere) premiazko esku-hartzeen lehentasunak, programak zein ebaluazio ekonomikoa zehazterakoan."*

Antolamendurako irizpideak direla eta, LAJetan beharrezkotzat jotzen da bakankako monumentuak zaharberritzeko lehentasunak ezartzea, eta aipatzen



da, orobat, kultur normalizazioaren printzipioa, orekan jarri behar dituen lehendik dauden kultur ondasunak, batetik, eta gizartearen oraingo zein geroko beharrak bestetik.

3. Kultur intereseko ondasunak deklaratzeko administrazio-prozedura. Hasierako eskabideari erantzun beharra. Elementu bat kultur ondasun izendatzeko prozedura administratiboari dagokionez, jasota dago 7/1990 Legearen 11. artikuluan. Espedientea ofizioz has daiteke, baina baita interesdun batek hala eskaturik ere. Aipatutako artikulua araberaz, *“edozein norbanakok nahiz lege-nortasundunek egin ahal izango du zermugapen-bideari ekiteko eskea, eta hori hasiera Administrazioak eman beharko dio, zio eta guztizko ukoa tartean izaten ez bada salbu; eta hau doakienei jakitera eman beharko zaie.”*

Erreklamazio honetako kasuan, Elkarte interesdunak eskatu zuen has zedin Arte Ederren eraikina kalifikatzeko espedientea. Hala ere, zazpi hilabete baino gehiago igarota ez du erantzunik jaso.

Ohartu beharra dago ez dela inon aipatu espedientearen prozesua luzatu edo eten egin denik. Denbora horretan, kultur administrazioak izapide eta eginbide ugari egin ditu, erantzunean azaldu bezala. Bestalde, Kultur Ondarearen Zuzendaritzak, espedientea irekitzeko eskaerari erantzun ez zaiola jakitun, adierazi du erantzun-idazki bat bidaliko duela, lehenbailehen, gertatutakoa zuzentzeko.

Baina izapide horiek balioetsi gabe, kontuan izan behar da administrazio publikoek, herritarrekiko harremanetan ari direnean, beti jo behar dutela prozedura administratiboaren bidetik beren zeregin publikoak egikaritzeko orduan. Hala da administrazioaren jarduerak bi helburu dituelako: administratuen eskubideak bermatzea eta interes publikoaren alde jardutea.

Horregatik, hain zuzen ere, administrazio-prozedura erkideak zehazten du nola jokatu behar den administrazioaren lana ordenatzeko, egikaritzeko eta kontrolatzeko. Administrazio-izapideen erabilera eta herritarrei era eraginkorrean erantzun beharra Espainiako Konstituzioak 103.1 eta 105. artikuluetan aurreikusitako bermeak dira, baina baita eskubide baten alderdietako bat ere, herritarrei administrazio egokia izateko eskubidea aitortzen baitie, 41. artikuluan, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak, Lisboako Itunaren bidez eratua berau.

Administrazio egokirako eskubidearen beste adierazgarrietako bat da idazkiak jaso izanaren jakinarazpena, berez ofizioz beharko lukeena. Gogoratu behar da, orobat, administrazio publikoak behartuta daudela interesdunen eskaerei esanbidez erantzuten. Horregatik azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri



Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, agintzen die administrazio publikoei, 42. artikuluan, hala egin dezatela sei hilabeteko epean gehienez.

Aztergai dugun kasuan, behin espedientea irekitzeko eskaturik, administrazio eskudunak ofizioz bultzatu behar du, eta kasuan kasuko administrazio-eginbideak burututa, kalifikazio-espedientea ireki behar du, non eta ez duen eskaera ezestea erabakitzen, eta beti ere ebazpen arrazoitu bat dela medio. 7/1990 Legeak bestelakorik ezarri ez zuenez, espedientea irekitzeko eskaerari erantzuteko epea 30/1992 Legeak oro harrean aurreikusten duena da, sei hilabetekoa, alegia.

Epe hori jada nahikoa gaindituta, beraz, kultur administrazioak legeak agindu bezala jokatu behar du, eta ondorioz, espedientea irekitzeko eskaerari erantzun.

4. Ondasun bat kultur interesekotzat deklaratzearen eta eraikinaren auri-egoeraren arteko erlazioa. Bestelako gauza da, gure iritziz, Kultur Ondarearen Zuzendaritzak espedientearen hasiera atzeratzeko argudiatutakoa, udalak eraikina auri-egoerakotzat jotzeko eskaera ebatzi beharra, hain zuzen ere.

Alde horretatik, azpimarratzekoa da eraikina auri-egoerakotzat deklaratzek ez duela zertan eragotzi kultur administrazioak eraikinari balio arkitektonikoak eta kulturalak aitortzea, egin duen bezala, Arte Ederren eraikinean horrelakoak badirela ohartarazi baitu bai Arartekoari helarazitako txostenean baita beste txosten batzuen bitartez ere, azken horiek Kultur Ondarearen Zentroko zerbitzu arkitektonikoek lehenago eginak.

Eraikinari balio kulturalak esleituz gero, kultur administrazioak adierazi behar du, luzamendurik gabe, zein den babes-mailarik egokiena ondare hori bermatzeko. Prozeduran ez da aurreikusten udalaren auri-espediente administratiboak eten edo atzerarazi dezakeenik kultur administrazioaren espedientearen irekiera.

Apirilaren 21eko 3183/2010 epaian Auzitegi Gorenak eskumen horren araubidezkotasuna gogoratzen du: *“katalogazioa araubidezkoa da zeren, babestu beharreko elementurik izanez gero, Administrazioak eman behar baitio eraikiari horrek bere ezaugarriengatik merezi duen babes-maila, babes bereziko lurzoruarekin egiten den gisara. Demandatutako Administrazioek, orain kasazio-errekurtsogile, bakarrik argudiatzen dute babes-mailaren beheratzea esanez era horretan eraikina errazago eraberritu edo egokitu ahalko zela ezarri nahi den proiektuari begira, baina horrek ez du inondik ere arrazoitzen babestu beharreko egiturazko elementuak desager daitezzen, egia baita, izan, horiek*





kontserbatzeak zaildu edo garestitu egin dezakeela eraikinaren erabilera arrazoizkoa, baina ez, Udalak dioenez bestela, haren errentagarritasuna eragozteraino". Gorenak ondorioztatzen du, beraz, "ondare artistiko eta kulturalaren babesa ezin dela utzi suerta daitezkeen bestelako gertakizunen mende".

Eraikinaren egoera eta nola dagoen kontserbaturik datu esanguratsuak dira ondasunen balioespen egokia egin ahal izateko eta behar duten babes-erregimena zehazteko. Baina eraikin bat aurri-egoeran egoteak edo horrelakotzat deklaratu izanak ez du oztopatzen, ordea, kultur ondasun gisa babestuko denik, baldin eta haren balioa egiaztaturik geratu bada. Badira eraikinak kultur intereseko ondaretzat aitortuak izan direnak haien kontserbazio-egoera kaxkarra izan arren eta, are, aurriztat deklaratu egon arren ere.

Uste dugu, azaldutakoagatik, kultur administrazioak proposatutakoa, hau da, kultur ondasunaren deklarazio-izapideak aurri-deklarazioa bukatu arte atzeratzea, ez dela bateragarria aipatutako araubidez kotasunarekin eta administrazio-izapideak bultzatzearen printzipioarekin.

- 5.- Aurri-deklarazioa eta eraikinak kontserbatu beharra. Bestalde, eta hala adierazten dute aurrekarietan aipatutako epaiek, eraikin bat aurriztat egoteagatik udal-administrazioak horrelakotzat deklaratzeko berebiziko garrantzia du jabearentzat, eraikina kontserbatu eta mantendu beharra berari dagokio eta. Aurriztat ondorio behinekoena da iraungi egiten dela jabeak ordura arte zeukan erakina mantendu beharra, eta horrenbeste, hortik aurrera eraitsi edo birgaitu egin behar dela.

Testuinguru horretan kokatu behar da Arte Ederren eraikinaren oraingo egoera. Alde horretatik gogora ekarri beharra dago hasitako udal-espedita burutu gabe egonik Arte Ederren eraikina ez dagoela, gau egun, aurriztat deklaratu.

Berezi behar dira eraikin baten aurri-egoera, une jakin batean dituen ezaugarri tekniko, ekonomiko edo hirigintzazkoen ondorioa dena, eta eraikina esanbidez eta legez aurrizkotzat deklaratzeko, udal-ebazpenez egiten den zerbitzu.

Abenduaren 5eko 9567/2001 epaian, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak adierazi zuen Arte Ederren eraikina aurri-egoeran zegoela, perituaren txostenaren arabera konponketak haren balioa baino %50 garestiagoak izango zirelako. Epaia aurriztat errekurtsoa aztertzean, Auzitegi Gorenak, abenduaren 5eko 9657/2001 epaian, EAeko Auzitegi Nagusiarena berretsi zuen, honako hau adieraziz: "eraikin baten aurri-egoera





aintzat hartzekotzat onar daiteke (jabeei dagokien mantentze-beharraren muga gisa) ez bakarrik delako egoera hori jada deklaratura dagoenean bide administratibotik nahiz epai bidez, baita administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat aurkeztu denean ere kontserbazio-obra egikaritzeko agindu baten aurka". Epaiaren arabera, hartara, egokia zen erakinaren aurri-egoera une hartan aintzat hartzea jabeen erantzukizunak baloratu ahal izateko.

Aurri-deklarazioa, haatik, ebazpena emateko eskumena duen organoari dagokio, Donostiako Udalari, alegia. Eta izan ere, epaian zehazten denez, *"Ohartu beharra dago, ordea, eraikina aurritan dagoelako baieztapenaren helburua egikaritze-aginduaren legezkotasuna epaitzea dela, ez duela gauza epaituaren ondorioz kontrakoa defendatzen duten hirugarrenentzat, eta horrenbestez, hala adierazi ahalko dute berariazko aurri-espediterik izanez gero eta espediente horretan interesdun guztiei entzunda".*

Eraikina aurri-egoerakotzat deklaratzeko beharrezkoa da berariazko prozedura bati ekitea, eta lehenago jabeek zein interesa duten hirugarrenek esan beharrezkoa entzunik. Gauzak horrela, Udalak deklarazioa ebatzi behar du kontuan harturik eraikinaren oraingo egoera eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 201. artikuluan xedatutakoa.

Azaldutakoaren arabera, udal-administrazioak aurri-egoera deklaratzeko badu hirigintza-arauei jarraituz, eraikina aurritan dagoela jo behar da. Auzitegiek ere aurri-egoerarik badagoen balioets dezakete, kasu horretan eraikina mantendu beharraren mugapenaz ebazteko, ordea.

Gorago adierazi dugunez, aurri-deklarazioaren ondorio behinena da ahuldu egiten dela jabeak daukan eraikina mantendu beharra. Horregatik, behin aurria deklaraturik jabeak aukeran du eraikina eraistea edo birgaitzea.

6. Kultur intereseko eraikinak mantendu beharra eta aurri-deklarazioak behar duen berariazko prozedura. Eraikin bat aurrikotzat deklaratzeko ez ditu desagerrarazten, haatik, Administrazioak babestu beharrekotzat jo dituen balio kulturalak eta arkitektonikoak.

Kontserbazio-lanak jabeen konturakoak izango dira baldin eta, aurri-deklarazioa eman arte, lan horien kostuak jabeei dagokien mantendu beharra gainditzen ez badu, eta kontserbazioa agindu duen erakundearen konturakoak izango dira, aldiz, behar horren maila igaro badu interes orokorreko hobekuntzak lortu nahi izan direlako.



Horrelakoetan, aurri-deklarazioak ez dakarkio betebeharrak gehiago jabeari, baina era berean, ez du zertan ekarri eraikina eraistea, ezta hura babestu beharra ahulduko denik ere.

Aurri-egoerakotzat jo daiteke, beraz, eraikin katalogatu edo babestu bat, baina berriazko prozedura bati jarraituz eta kultur administrazioak prozedura horretan esku hartuta.

2/2006 Legearen 201.4 artikuluan hala ezarrita, kultur arloko legediaren arabera katalogaturik edo inbentariaturik dauden eraikinak aurrikotzat deklaratzekotan kultur ondarea babesteko legedian xedatutakoari jarraitu behar zaio. Kasu honetan, 7/1990 Legearen 36. artikulua kultur ondasunen aurri-egoera deklaratzeko prozedura zehatz bat gehitzen dio azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuak aurreikusitakoari. 306/1998 Dekretuaren 1.2 artikulua arabera, *“Kalifikatutako edo zerrendatutako kultur ondasun baten aurri-egoera deklaratzeko izatezko egoera baten egiaztapenetik eta dirulaguntza gabeziatik dator. Aurri-egoera, dena den, ez da bateraezina kultur ondasun batek, bere balio kulturalaren arabera, merezi duen babes-eskakizunarekin.”*

Prozedura horrek, behar bezalako koordinazioa ezartzeaz gain esku hartzen administrazioei (udala, Eusko Jaurlaritza eta aldundia), zehazten du zer kasutan jo daitekeen kalifikatuta eta inbentariatuta dagoen ondasun bat legeko aurri-egoerakotzat (ezin lehengoratzeko aurri-egoera fisikoa, eta konponketaren kostua eraikinak une horretan duen balioa baino %50 handiagoa izatea, zenbatespen horretan eraikinari inolako balio-galtzerik aplikatu gabe).

Illo horretatik, hona hemen zer dioten Auzitegi Gorenak 1985eko otsailaren 18ko epai batean: *“aurri-deklarazio bat bidezkoa izateak ez du esan nahi (...) eraikina kontserbatu beharrekotzat izendatuta egon ezin daitekeen Intereseko Eraikin eta Multzoen Katalogoan, (...) zeren, berez, eraikin baten aurria izatezko datu bat baino ez baita ([AGren 1978ko maiatzaren 20ko epaia \[AJ 1978, 2981\]](#), [1978ko irailaren 28koa \[AJ 1978, 3255\]](#) eta [1978ko urriaren 30ekoa \[AJ 1978, 3987\]](#)), eta horren arabera, gerta daiteke eraikina aurritan egotea eta hala deklaratu behar izatea, egoera horren arrazoiak direnak direla eta eraikinak izan dezakeen kalifikazio juridikoa gorabehera (historikoa edo artistikoa, interesekotzat katalogatua, etab.), eta hala da eraikin baten hondatze-prozesua ez delako geldituko iritzi estetiko edo juridikoengatik. Horrek ez dakar, noski, behin eraikin historiko edo artistiko baten aurria deklaraturik ezinbesteko ondorioak eraistea izan behar duenik, izan daitezkeelako tartean bestelako arrazoiak, kulturalak, eraikina kosta ahal kosta kontserbatzea gomendatuko dutenak, horien ondorioa delarik egoki deritzen konponketak edo elementuen ordezkapenak egitea, baina baita kontserbatze-behar hutsetik harago joatea ere, behintzat hainbestetan aipatutako Testu*





Bateginak 181. artikuluan behar horri ematen dion zentzu orokorrean. Eta ondorio berberera iristen da [Auzitegi Gorena 1978ko maiatzaren 12ko epaian \(AJ 1978, 2974\)](#), azpimarratzen baitu gauza desberdinak direla, alde batetik, eraikin baten aurri-egoera, eta bestetik, delako eraikin hori kontserbatu beharra komunitatearen interesen onerako, eta irizten du, ondorio gisa, horrek «bateragarriak egin ditzakeela aurri-egoeraren deklarazio irmo bat eta eraikina kontserbatzeko aukera, berau behar espiritual kolektiboak asetzearren planteatua», baina hori guztia aurri-deklarazioaren osteko gai bat dela, eta guztiz desberdina”.

Horren arabera, bada, eraikin bat aurritan egoteak edo horrelakotzat deklaratzek ez du eragozten hura kultur intereseko ondasun gisa babestea. Gehienez, deklarazioaren ondorioa izango da bukatu egin dela hirigintza-legediak ezartzen duen ondasuna babestu beharra. Era berean, eraikin katalogatu bat izanez gero, edo bere balio kulturalengatik babestua edo katalogazio-prozeduran hasia, aurri-deklarazioak kultur ondasunei buruz zedatutakoari heldu beharko dio.

Azaldutakoagatik, eta erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11b) artikuluan oinarriturik, hona hemen egiten dugun

Gomendioa

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hasi behar du Donostiako Arte Ederren eraikina interes kulturalerako ondasuntzat deklaratzeko espedientea, kontuan harturik Kultur Ondarearen Zuzendaritzak bere txostenean adierazitakoa, alegia, Arte Ederren eraikinak nahiko balio kulturalak dituelako, berez, euskal kultur ondarearen parte bilakatzeko. Eta hori egitean 7/1990 Legeak, Euskal Kultur Ondareari buruzkoak, 11. artikuluan ezarritakoari jarraitu behar zaio.

Halaber, ondarearen babesa bermatzeko, beren balio bereziagatik babestu beharrekotzat jotzen diren elementuak zehazteko, eta horretarako, ondasunak suntsi daitezzen eragotziko duen finantzamendu- eta lehentasunen plan bat eranstea. behin-behineko babes-mailaren berri emango dio Donostiako Udalari, aintzat har dezan legezko aurri-deklarazioari begira eta babes-maila hori egoki txertaturik gera dadin izapidetze-bidean dagoen EHOPBeko aurreikuspenetan.

Espedientea izapidetu bitartean eta behin betiko erabakia hartu aurretik, parte-hartzerako prozesu bat abia dezan interes zuzena duten alderdiengana (Elkartea, eraikinaren jabea eta hirugarren interesdunak), hala adosturik gaian zerikusia duten beste administrazioekin (Donostiako Udala eta Gipuzkoako Aldundia). Prozeduraren harira komenigarria litzateke ekintza-plan bat taxutzea kultur